

## KOSTUEN EGITURA

Gure proiektuan edukiko ditugun kostuak hauek izango dira:

Hasteko, guk lokal propio bat eduki beharko dugu antolakuntza eta bezeroen harremanetarako. Lokal hau alokatua denez, bere kostua hilabetero 400€ izango dira, kostu finkoa delako. Jabeari zuzenean ordainduko diogu. Bertan, ofizina bat izango dugu ordenagailu eta telefonoekin eta baita bilera gela bat ere. Beste hileroko kostu finko batzuk ere izango ditugu: Telefonoaren tarifa (5 telefono) hilabeteko 75€koa izango da, eta ura eta argia 60€ hilabeteko.

Hasierako inbertsio bezela ordenagailuak eta *Remember* programa ordaindu beharko ditugu: ordenagailu bakoitzak 300€ balioko du, hortaz, 6 ordenagailu behar baldin baditugu zaharretxeetako helduekin kontaktuan jartzeko, hasierako kostua 2.100€koa izango da. *Remember* software-a ere garatu beharko dugunez, informatiko batzuen zerbitzuak jaso beharko ditugu, beraz, hasierako inbertsioa 10.000€koa izango da, baina hortik aurrera guk ikasi eta erabiliko dugu.

Gure produktua fabrikatzeak ere kostu bat du, txip bakoitza egiteagatik 10€ eta audifonoak 15€. Kostu hau, eskatutako produktuen kopuruaren arabera izango da, hots, aldakorra. Hasieran, bakoitzetik 150 unitate erosteko asmoa dugu, aurrerago beharren arabera gehiago erosten joango gara.

Horretaz gain, gure langileen soldata ere ordaindu beharko dugu, urtean batez beste 20.000€koa izango da, baina beti ere egiten duten lanaren arabera. Horregatik, kostu hau ere aldakorra izango da.

## LEHENENGO URTEKO KOSTUAK

KOSTUAK	ZERBITZUA	PREZIOA	KOPURUA	GUZTIRA
HASIERAKO INBERTSIOA	Ordenagailuak	350€	6	2.100€
	Remember Softwarea	10.000	1	10.000€
KOSTU FINKOAK	Alokairua	400€/hilabetea	12	4.800€
	Argia eta Ura	60€/hilabetea	12	720€
	Telefono tarifa	75€/hilabetea	12	900€
KOSTU ALDAKORRAK	Soldatak Gordinak	20.000€ urtean /pertsonako	8	160.000€
	Txipa	10€	150	1.500€
	Audifonoak	15€	150	2.250€
<b>GUZTIRA:</b>				<b>182.270€</b>

## LEHENENGO URTEKO IRABAZIAK

Diru-sarrerak	184.000€
Kostuak	182.270€
<b>MOZKINAK GUZTIRA:</b>	<b>1.730€</b>